

LGTBI+fobiaren kontrako Nazioarteko Eguna

Nazioarteko erakundeek babesturik, maiatzaren 17an LGTBIfobiaren kontrako Nazioarteko Eguna ospatzen da. 1990eko maiatzaren 17an, Osasunaren Mundu Erakundeak homosexualitatea kendu zuen nahasmendu mentalen zerrendatik. Egun horretan LGTBI+ pertsoneri buruzko ikuspegia aldatu zen. Hortik aintzin homosexualitatea ez da gaixotasun bat kontsideratzen, sendatu edo are kutsatu zitekeena, giza aniztasunaren agerbide bat baizik.

Gorroto-diskurtso LGTBIfobikoak modu arriskutsuan naturalizatu dira, erasoek (eta/edo jasotako salaketek) gora egin duten bezala.

Baztandar jendartea askotarikoa da eremu aunitzetan, eta aniztasun hori onartzeak LGTBI+ pertsonen eskubideak defendatzeko eta, beraz, sexu orientazioan, genero adierazpenean eta sexu- edo genero-identitatean oinarritutako desberdinkerien kontra lan egitera bulkatzen gaitu. Baztango Udalak ere LGTBIQ+ pertsonenganako eta genero-aniztasun eta aniztasun afektibo-sexualarekiko gorroto, errepresio edo indarkeria adierazpenak desagerrarazteko esfortzuak egiteko konpromisoa dauka.

Horretarako ekintza desberdinak burutu izan ditugu azken asteetan: ZINEGOAK film laburren proiektzioa, Kattalingune zerbitzuaren aurkezpena eta sentsibilizazio saioa klaustroendako eta herritarrendako, eta gurako elkarrekin eta eskolekin batera herri eta eskoletako elementu desberdinak margotzeko egingen diren ekintza desberdinak. Gaurko egunarekin, Amaiurren burutu dute ekintza hau.

Gaur LGTBIQ+ eta trans banderak jarri ditugu udaletxean, eta hilabete honetako osoko bilkuran, Udalak adierazpen instituzional bat egingo du LGTBIQ+fobiaren aurkako konpromisoa adierazteko.